

[Berria.info](#) » [Papereko Edizioa](#) » [Harian](#)


2010-05-20

Gazte mugimenduaren aurka azken urteetan egin diren sarekadak salatuko dituzte Iruñean etzi. Deitzaileek diote poliziek «zerrenda beltzak» osatu dituztela gazteekin.

## Sega eta mailuaren estrategia

JOKIN SAGARZAZU.

Hautsitako leihoaren teoriak hala dio: leiho bat apurtzen duena gogor zigortu behar da, gogortasunez erantzun ezean, pertsona hori norbait hiltzera iritsi daitekeelako. 90eko hamarkadan New Yorkeko alkate Rudolph Giulianiak bultzatutako politikak jarraitzaile ugari izan ditu, baita Euskal Herrian ere.

*Hautsitako leihoa* izenburu duen film batek Euskal Herriko hiru gazte adingabeei gertatutako kontakten du. Kale eraso batzuetan parte hartzea leporatuta atxilotu zituzten. Zigortzeko orduan, baina, «terrorismo» delitu bat egotzi zieten. Zigor eredugarria ezarri nahi zuen epaileak: mezua bidali.

Filma, baina, ez da fikziozkoa. Kale istiluetan parte hartzea leporatuta edo, besterik ezean, lan politiko eta soziala egiten duten gazte mugimenduetan aritzeagatik, 1.700 bat gazte atxilotu dituzte azken bi hamarkadetan. 90eko hamarkada amaieratik aurrera, gehienak lurralde auzitegi batean epaitu beharrean, «terrorismo gaietan espezializatutako» auzitegi batean epaitu dituzte.

Zergatik bereizketa hori? Julen Arzuaga abokatuak *La maza y la cantera* (Txalaparta, 2010) liburuan aztertu duenez, zenbait gobernuk, epaileek eta hainbat komunikabidek urteetan landu eta partekatu duten estrategia baten emaitza da hori. Argi du abokatuak: «Etsaiaren zigor zuzenbidea aplikatzen du Espainiako Estatuak gazteen aurka».

Arzuagak azaldu duenez, zenbait agintariek, komunikabideen laguntzarekin, Y taldeen irudia «eraiki» zuten lehenengo. Ideia horri eutsi ezin ziotela agerian geratu zenean, Zigor Kodea erreforma zuten, eta kale eraso oro «ekintza terrorista» bihurtu zuten, «egilea talde terrorista bateko kide izan edo ez». Baliabide horiekin guztiekin, baina, epaileek ezin zuten aurrera egin. Arzuagaren arabera, jopuntuan zutena ez ziren ekintza jakin batzuen egileak, «ezaugarri jakin batzuk» dituzten gazte taldeak baizik.

### Harririk gabe ere bai

Eta lortu zuten, horretarako epaileek beraiek «zuzenbidea sortu» behar bazuten ere. Horrela iritsi ziren, lehenengo, gazte erakundeen legez kanporatzeak, eta, ondoren, zirkulua itxiz, eragile horiek erakunde terrorista bihurtzea. «Terrorista» izateko jada ez zen beharrezkoa kale eraso batean parte hartzea.

Larunbateko manifestazioko deitzaileek emandako datuen arabera, azken urteetan, 2006an Auzitegi Gorenak Jarrai, Haika eta Segi erakunde terroristatza jo zituenetik, 162 pertsona atxilotu dituzte, eta horietatik 103k salatu dituzte torturak. Gazte horien aurkako frogak nagusia bihurtu da inkomunikazioan lortutako adierazpenak. Eta horietan oinarrituz osatu dituzte poliziek beste hainbat gazte jopuntuan jarri dituzten «zerrenda beltzak».

Eta zerrenda horietatik tiraka jarraituko dute poliziek eta epaileek. «ETAren harrobia segatu arte», dio Rodolfo Ares Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo sailburuak. Arzuagak, baina, ez dauka horren argi. «Lan tresnen kaxan mailuak besterik ez dituenarentzat, ilte dira arazo guztiak». Sinetsita dago arazo politiko bat denak itenbide politikoa izan behar duela.